

Akziodunek Euskaltel Taldearen kudeaketa babestu dute, eta 2016ko ekitaldiko kontuak eta dibidenduaren banaketa onartu dituzte

Euskalteleko Akziodunen Batzar Orokorrak Telecable erostea onartu du

- *Akziodunen Batzar Orokorrak baimena eman du Telecable (Asturiasko operadore liderra) eskuratzeko, Zegonari kapital sozialaren % 100 erosiz.*
- *Euskaltel Taldea Estatuko iparraldeko telekomunikazio-operadore bateratu gisa finkatu da.*
- *Erosketa horrek balio estrategikoa du Euskaltel Taldearentzat; haren bidez, burtsara ateratzeko prozesuan planteatu zuen helburua, Estatuko iparraldeko kablea finkatzea, bete egin du orain.*
- *Euskaltel Taldeak 6 milioi laguneko merkatu bati eskainiko dizkie zerbitzuak aurrerantzean, 2,4 milioi zerbitzu eskainiko dizkie egunero 800.000 bezerori baino gehiagori eta 711 milioi euroko diru-sarrera bateratuak lortuko ditu, 346 milioi euroko EBITDA eta 224 milioiko cash flowa.*
- *Francisco Arteche kontseilari delegatuak nabarmendu du Taldeak ahalmen handia duela kutxa hornitzeko. Horrek aukera eman du akzio bakoitzeko 0,36 euroko dibidendua ordaintzeko akziodunei, hau da, % 4 baino gehiagoko errentagarritasuna. Guztira, 54,6 milioi euro banatuko dira dibidendutan.*
- *Akziodunek Administrazio Kontseiluaren kudeaketa babestu dute, eta 2016ko kontuak eta dibidenduaren banaketa onartu dituzte.*
- *Halaber, hiru kontseilari berri izendatzea onartu du Batzordeak: Luis Ramón Arrieta, kontseilari ahaldun gisa, Alfonso Basagoitiren ordeiz; Robert Samuelson, kontseilari ahaldun gisa, Zegonak proposatuta; eta Jon James, kontseilari independente gisa.*
- *Euskaltelek 318,1 milioi euroko balio soziala sortu du 2016an. Hori da erakundeak gizarte osoarentzat sortu duen balioa; alegia, kontuan harturik erakundeak bere jardueraren bidez sortutakoa eta merkatutik kanpo banatzen dena.*

- **Enpresaren erantzukizun sozialak konpainiaren ereduarekin zerikusia duen seinale, Taldearen (Euskaltel eta R) Erantzukizun Sozialeko Politika onartuz 2016ko maiatzean, bere interes-taldeei balioa emateko.**
- **Taldeak berretsi du errentagarritasuna handitzea aurreikusten duela; beraz, horrek aukera emango dio akziodunei ordaintzeko politika “iraunkor eta gorakor bati” eusteko.**

Bilbon, 2017ko ekainaren 26an. Euskaltel Taldeko akziodunek Telecable erostea onartu dute gaur goizean Taldearen Derioko egoitzan (Bizkaia) egin duten Batzar Orokorrean. Bilera horretan, konpainiako erabaki-organo gorenak gehiengoaren babesa izan du planteatutako proposamenen aurrean; besteak beste, puntu hauek proposatu dira: Telecableren erosketa berrestea, eragiketa horretarako behar den kapitala handitzea, akziodunentzako dibidenduak banatzea onartzea, 2016ko ekitaldiko kontuak onartzea eta kontseilari berriak izendatzea.

Telecable (Asturiasko operadore nagusia) erositako, bete egin da Euskaltelek burtsara ateratakoan ezarritako helburua: Estatuko iparraldeko operadore bateratu lider bihurtzea. Erosketa hori erabat estrategikoa da, eta berekin dakar Estatuko iparraldeko hiru operadore handi bateratu Talde bakar batean integratzea.

Finantzei dagokienez, 711 milioi eurokoak izan dira Taldearen emaitza bateratuak (+% 24); EBITDA, berriz, 346 milioikoa (+% 23, eta salmentekiko marjina, % 48,6), eta cash flowa, azkenik, 224 milioi eurokoa (+% 21, eta salmentekiko marjina, % 31,5). Horrenbestez, Europako sektoreko kutxa-horniduraren ratio handienetako bat dauka Taldeak. Talde berriak bere horretan eutsiko die Euskaltelen, R-ren eta Telecableren tokiko izaerei Euskadin, Galizian eta Asturiasen, hurrenez hurren; hau da, bakoitzak bere marka, egitura eta talde profesionala izango ditu aurrerantzean ere.

“

Alberto García Erauzkin

“Bi urte baino gehixeagoan, hiru lorpen handi izan ditugu: burtsara atera gara, Estatuko iparraldean telekomunikazio-talde nagusi izatera iritsi gara Galiziako R taldera bilduta 2015ean eta laster taldera bilduko den Asturiasko Telecable ere eskuratuta, eta akziodunari dibidendu bidez ordaintzeko politika sendo bat definitu eta gauzatu dugu.

”

Euskaltel Taldeko presidente Alberto García Erauzkinek esan du Telecable eskuratu izana mugarri bat izan dela Euskaltelen bilakaeran eta, hala, burutu egin dela Estatuko iparraldean kablea sendotzeko bidea. *“Bi urte baino gehixeagoan, hiru lorpen handi izan ditugu: burtsara atera gara, Estatuko iparraldean telekomunikazio-talde nagusi izatera iritsi gara Galiziako R taldera bilduta 2015ean eta laster taldera bilduko den Asturiasko Telecable ere eskuratuta, eta akziodunari dibidendu bidez ordaintzeko politika sendo bat definitu eta gauzatu dugu”.*

García Erauzkinek, orobat, hau esan du: *“Mugarri honek eta haren ondoriozko ekintzek argi eta garbi erakusten dute gure konpromisoak bete ditugula. Izan ere,*



alderdi askoko helburu bat indartzen du: inbertitzaileentzat balioa sortzea, gure bezeroei produktu eta zerbitzu aurreratuak eskaintzea, gure pertsonak motibatzea eta profesionalki garatzea, eta aberastasuna, garapen ekonomiko, sozial eta teknologikoa sortzea jarduten dugun autonomia-erkidegoetan, R-ren bidez Galizian, Euskaltelen bidez Euskadin eta, laster, Telecableren bidez Asturiasen”.

Bestalde, Taldearen kontseilari delegatu Francisco Artechek positiboki baloratu du Telecable Euskaltel Taldera sartzea: *“Hala, Euskaltelek burtsara ateratakoan ezarri zuen helburua bete da, hau da, Estatuko iparraldeko operadore bateratu lider bihurtzea. Telecableren bolumena Talde berriaren % 15 inguru izango da. Erosketa erabat estrategikoa da Euskaltelentzat, zeren eta bi aktiboak osagarriak baitira eta transakzioa amaitutakoan sinergia ugari lortzea espero baita”.*

“

Francisco Artech

“Telecableren bolumena talde berriaren % 15 inguru izango da. Erosketa erabat estrategikoa da Euskaltelentzat, zeren eta bi aktiboak osagarriak baitira eta transakzioa amaitutakoan sinergia ugari lortzea espero baita”

”

Euskaltelek eta R-k merkatu-kuota egonkorak dituzte

Batzar Orokorrek Taldearen 2016ko kontuak onartu ditu. Lehen ekitaldia da, R-ren eragiketa urte osoan hartu duena. Taldearen kontseilari delegatu Francisco Artechek negozioak urtean izan duen bilakaera positiboa nabarmendu du, zeren eta salmentak % 1,3 handitu baitziren, 573 milioi eurora iritsi arte.

Artechek hau nabarmendu du: *“Antolakuntzaren ikuspegitik, aukera paregabea izan da R, haren pertsonak eta azpiegiturak Taldean sartzea, bakoitzaren lurraldean egiten diren eragiketekin elkar aberasteko, erakunde bakoitzaren alderdirik onenak ateraz, eta Taldearen hobekuntza orokorra sustatzeko. Galiziako eragiketak Euskaltel-ek eta R-k osatzen dugun dugun Taldearen salmenten % 44 dira. Ikuskatutako kontuen ikuspegitik, R erostearen ondorioz % 64 hazi dira diru-sarrerak, % 68 EBITDA, eta % 62 kutxa-hornidura”.*

Azken urteotan bereziki lehiakorra izan den ingurune batean, kontuan izanik beste sare batzuek gero eta presentzia handiagoa dutela Euskaltelek eta R-k jarduten duten lurraldeetan, ustiapen-emaitza gordina (EBITDA) 281 milioira igo zen, hau da, aurreko ekitaldia baino % 5,1 gehiago, eta salmentekiko marjina % 49 izan zen.



Bilakaera horrek erakusten du arrakasta izan zutela kostu operatiboen kudeaketak eta aurreko ekitaldietan martxan jarritako eraginkortasun-neurriek. *“Gure lehiakideek merkataritza- eta sustapen-presio handia egin arren, Taldeak egonkor eutsi die bere merkatu-kuotei, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Galizian. Horrek erakusten du gure markek erresilientzia eta indar handia dutela, gure bezeroek hurbilekotzat hartzen dituztela eta jotzen dutela zerbitzu-kalitate handiagoa dutela, eta gure balio handiak bereizgarriak direla merkatuan”*, azpimarratu du Artechek.

“

Francisco Artech

“Gure lehiakideek merkataritza- eta sustapen-presio handia egin arren, Taldeak egonkor eutsi die bere merkatu-kuotei, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Galizian. Horrek erakusten du gure markek erresilientzia eta indar handia dutela, gure bezeroek hurbilekotzat hartzen dituztela eta jotzen dutela zerbitzu-kalitate handiagoa dutela, eta gure balio handiak bereizgarriak direla merkatuan”.

”

Estrategian oinarritutako emaitzak

Artechek esan du Taldeak 2016an lortutako emaitza onek Euskaltelen Estrategiaren oinarriak dituztela ardatz. *“Hasierako eskaintza publikoan aurkeztu ziren oinarriok, eta haiekin dudan konpromiso pertsonala berretsi dut kontseilari delegatu naizenetik”*.

Batzar Orokorraren aurrean eman duen hitzaldian, hau esan du: *“Euskaltel Taldearen estrategia bezeroen oinarriaren epe luzeko balioa ahalik eta gehiena handitzea da, etxe eta enpresa bakoitzeko produktu gehiago salduz, kontsumitzaileak maila handiagoko produktuetara eramanez eta bezero berriak erakarriz balio handiko paketeak eta zerbitzu digitalak eskainita”*.

Horrez gain, hau erantsi du: *“Taldearen strategiaren bidez, lortu nahi da Galizian eta Euskadin dugun lidergoa suspertzea, lidergo horrek marka indartsu bat izatea oinarri, sarea gehiago hedatzea eta bezeroengandik hurbilago egotea”*. Hori dela eta, Taldearen strategiak R integratzearen sinergiak osatu nahi ditu, eta finkatzeko aukera berriak aztertu. Estrategia horren emaitza gisa, Asturiasko operadorea erosi da, gaurko batzarrean onartuta.

Azkenik, Taldeak *“finantza-diziplinarekin jarraitu behar du”*, Arpu aldagaia, cash flowa eta EBITDA ahalik eta gehiena handituz eta CAPEX optimizatuz, *“gure diruzaintzan sortutako diruarekin akziodunei ordaintzeko, eta EBITDA 3-4 aldiz ingurukoa izango den arrazoizko zorpetze bati eutsiz”*.



Akzioko 36 euro-zentimoko dibidendua, eta % 4 baino gehiagoko errentagarritasuna

Cash flow operatiboa, EBITDAren eta inbertsioen (CAPEX) arteko diferentzia gisa definitua, % 12,7 hazi zen (185 milioi), eta % 32ko marjina lortu zen diru-sarrerekiko; Europako konparagarrietan, berriz, % 21 izaten da, batez beste.

“Kutxa hornitzeko gaitasun nabarmen horrek aukera emango digu gure akziodunei lehen aldiz ordaintzeko, akzioko 36 euro-zentimo emanaz, hau da, akzio bakoitzeko % 4 baino gehiagoko errentagarritasunarekin”, azaldu du Taldeko kontseilari delegatuak.

Gogoan izan behar da Euskaltelen Administrazio Kontseiluak urrian onartu zuela konpainiaren akziodunen artean 2016ko ekitaldiaren konturako dibidendu bat banatzea, akzioko 0,15 euro gordinekoa, hau da, 22,7 milioi euro, eta 2017ko otsailaren 1ean ordaindu zela. Gero, eta aurrekoaren ondorioz, Administrazio Kontseiluak adostu zuen Akziodunen Batzorde Orokorriari proposatzea 0,21 euroko dibidendu osagarri bat onar zezan, hots, 31,8 milioi euro. Uztailean ordainduko da, Administrazio Kontseiluak zehaztutako egunean (Batzorde Orokorra egin eta berehala egingo du bilera Administrazio Kontseiluak).

Horrek esan nahi du Euskaltelek banatzen duen lehen dibidendua 54,6 milioi eurokoa dela.

Horrekin batera, aurten negozioaren zorpetze-maila ia EBITDA adina jaitea lortu da; hala, zor/EBITDA ratioa 5,1etik 4,2ra jaitsi da, eta ezarritako helburura hurbildu da: EBITDA 3-4 aldiz izatea.

“

Francisco Arteche:

“Kutxa hornitzeko dugun gaitasun nabarmen horri esker, aukera izango dugu gure akziodunei lehen aldiz ordaina emateko: akzioko 36 zentimoko dibidendu bat emango zaie, edo, bestela esanda, akzioaren balioarekiko % 4tik gorako errentagarritasuna”.

”

Digitalizazioa da hazteko faktore giltzarria

Alberto García Erauzkinen hitzetan, 2016an Taldeak aurrerapen garrantzitsuak egin ditu Estrategiaren garapenean, *“eta horren ondorioz esan dezakegu gure Negozioak gaur balio handiagoa duela eta dibertsifikazio handiagokoa dela, eta akziodunentzako itzulera eta gure ingurunerako balio sozial garrantzitsua sortzen duela”.*

“Orainari eta etorkizun hurbilari buruz hitz egiten badugu, jarraitu du lehendakariak Euskaltelek badaki bere balio-estrategiari eutsiko diola 2017an lehia handia izan arren. Eta etorkizunari dagokionez, konbentziturik gaude gizartearen, ekonomiaren eta negozioen digitalizazio gero eta handiagoa faktore giltzarria dela, eta hartan posizioa hartu behar dugula lehiakorrak izaten eta hazten jarraituko badugu. Uste dugu bezeroengandik gertu gaudenez eta telekomunikazioen arloan



urteetako lankidetzaz sortu dugunez posizio onean gaudela aukera horretatik onura lortzeko eta hazteko, ematen ditugun zerbitzuak zabalduz eta, era berean, bezeroekin dugun lotura handituz”.

Produktu berriak eta bezeroentzat balioa duten zerbitzuak

Hurrengo hilabeteetan egin beharreko ekimenei dagokienez, Artechek iragarri du Euskaltel Taldeak indartu egingo duela ekimenen eta balioa duten proposamenen merkaturatzea: *“Estrategia berri baten lehen urratsak izango dira, bezeroarengandik gertu egoteko, hari entzuteko eta haren beharrei erantzuteko dugun konpromisoa sendotzeko; hala, gure produktu eta zerbitzuen berrikuntza bizkortuko dugu”.*

Hauek dira ekimen horietako batzuk –urtearen bigarren partean gehiago iragarriko dira–:

- Uztailan, Android telebistan oinarritutako deskodetzaile berri bat merkaturatuko da, 4k-ko irudi-kalitatekoa; *“haren bidez, telebista adimenduna orokortuko dugu Euskadiko eta Galiziako etxeetan”.*
- Etxe konektatuaren zerbitzuak. Galizian erabilgarri daude martxoaz geroztik, eta laster plazaratuko dira Euskadin.
- Telekomunikazio-sareen eguneratze garrantzitsu bat. Euskadiko sarearen % 40 dagoeneko prest dago Docsis 3.1 estandarrekin lan egiteko.
- “WiFi-a Oporretan” kanpaina berritzailea. Gaur bertan abiatuko da, eta aukera emango die Euskaltelen bezeroei WiFi-a beren oporlekura eramateko.
- Pakete-soluzioak merkaturatzea enpresa txiki eta ertainentzat. Abuztuan bundle bulegoa plazaratuko da (barnean hartzen ditu telefonogunea, firewall-a...).
- Start Ups Euskaltel eta Start Ups R eskumena merkaturatzea. Doako zerbitzu bat da, Euskadiko eta Galiziako Start Up-ei telekomunikazioko eta informazio-teknologiaren arloko zerbitzuetarako sarbidea emango dena.
- Euskaltelen FTTH teknologiaren zabalkundea: Euskadiko 4.500 enpresatara baino gehiagotara iritsiko da.

“Etorkizuna gaurtik aurrera hasiko da idazten”

Bere parte-hartzearen konklusioetara iritsita, Taldeko lehendakariak baieztatu du 2016a urte handia izan dela, funtsezko bi arrazoiengatik. *“Lehenik, merkaturatzearen bidez, bezeroekin, emaitzetan eta kutxa-hornitzean hazkunde sendoa izan dugu, eta Galiziako R Euskaltel Taldean modu arrakastatsuan integratzea lortu da. Eta bigarrenik, abiatu garelako akziodunari ordaina emateko bidean, eta hala jarraitzeko asmotan gainera, lehen dibidendua banatu baitugu*

“

Alberto García Erauzkin

Ezin dugu ahaztu Telecable eskuratu izana mugarri bat izan dela, hala burutu egin baita Estatuko iparraldean kablea sendotzeko bidea. Bide arrakastatsua izan da; haren jatorria estrategia izan da, etengabe aurrera eraman baitugu, eta gure interes-taldeekin itxaropenak betez betiere. Etorkizuna gaurtik aurrera hasiko da idazten, eta prestatuta gaude ahal den letrarik onenarekin idazteko”

”

burtsan kotizatzen duen enpresa gisa hasitako ibilbidearen hurrengo urtean bertan”.

2017ari buruz, hau nabarmendu du: *“Ezin dugu ahaztu Telecable eskuratu izana mugarri bat izan dela, hala burutu egin baita Estatuko iparraldean kablea sendotzeko bidea. Bide arrakastatsua izan da; haren jatorria estrategia izan da, etengabe aurrera eraman baitugu, eta gure interes-taldeen itxaropenak betez betiere. Etorkizuna gaurtik aurrera hasiko da idazten, eta prestatuta gaude ahal den letrarik onenarekin idazteko”.*

Bestalde, Francisco Artechek, bere mintzaldiari amaiera emateko, konfiantza-mezu bat eman du Euskaltelek, R-k eta Telecablek osatzen duten taldearen etorkizunari buruz, eta sozietateak duen hazkunde-aurreikuspenak berretsi ditu. *“Berretsi nahi dut eutsi egiten diegula aurtengo urterako egina dugun aurreikuspenari eta helburuari, hau da, EBITDA-marjinaren zein cash flowaren hazkundera sendotzeari; horri esker, aukera izango dugu akziodunari modu iraunkorrean eta gorakorrean ordaintzeko”.*

Taldeko kontseilari berriak

Batzar Orokorrak Taldeko Administrazio Kontseiluan kide berriak sartzea onartu du. Zehazki, hau onartu da: Luis Ramón Arrieta izendatzea Alfonso Basagoiti ordeztzeko, azken horren kontseilarialdia amaitu baita, eta Robert Samuelson izendatzea, biak kontseilari ahaldu gisa, eta Jon James izendatzea, kontseilari independente gisa.

- **Luis Ramón Arrieta** (1957, Maeztu-Araba). Zientzia Kimikoetan lizentziatua da Valladolideko Unibertsitatean, eta Finantza Ekonomiako Doktoa Madrileko Unibertsitate Autonomoan. NSEAD eta IESE negozio-eskoletan aberastu du bere trebakuntza. Bankuen sektorean lan egin du, batik bat. Zehazki, Finantza Banco de Crédito SA eta BBVA E-Commerce-ko kontseilari delegatua izan da, BBVAko zuzendari nagusiaren ondokoa eta BBVAko Euskadi eta Kantabriako lurralde-zuzendaria. BBVA Taldearentzat egin ditu lan horiek guztiak.

Unibertsitate-alorrean ere aritu izan da, Deustuko Unibertsitate zuzendari nagusi izan baitzen 2007tik 2012ra bitartean. Horretaz gain, hainbat erakundetako administrazio-kontseiluetako kide izan da; besteak beste, hauetakoa: Norpension SA, Solium SA, Terra Network SA, Mobipay Internacional SA, Portal Gas Natural SA eta Hotelnet B2B SA. Gaur egun, Caja de Ahorros de Vitoria y Álava-Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuko kidea da Arabako Foru Aldundiaren izenean.

- **Robert Samuelson-ek** (1964, Bradford-Erresuma Batua) Cambridgeko Unibertsitateko Natura Zientzietako Master's Degree bat du, eta MBA bat egin zuen Cranfield-eko Unibertsitatean (Cranfield School of Management). Robert Samuelson-ek industrian eta ingeniariaren arloan egin zituen lehen urratsak lan-munduan, British Aerospace eta Royal Ordnance enpresetan. Gero, aholkulari gisa jardun zuen Arthur D Little Ltd. zerbitzu-konpainian; han, “corporate finance” arloko buru gisa, telekomunikazioen sektoreko konpainia batzuen aholkularia izan zen.

2000. urtean, Virgin Taldean hasi zen, non zenbait ardura izan baitzuten. Zehazki, Virgin Media, Inc. konpainiako estrategia-taldeko zuzendari exekutiboa



izan zen. Halaber, garapen korporatiboko zuzendaria izan zen Virgin Management Limited-en eta zuzendari exekutiboa Telecoms & Media konpainian, zeina Virgin Management Limited-ena baita. Bera arduratu zen Virgin-en negozio-lerro berriak sortzeaz eta konpainiaren garapena mugikor bidezko telekomunikazioen arlora eramateaz Kanadan, AEBn, Frantzia eta Hegoafrikan; 2001ean Estatu Batuetako Virgin Mobile USA, LLC konpainia sortu zuen.

2015eko urtarrilean, Zegona Communications PLC sortu zuen, non eragiketa-zuzendaria eta zuzendari exekutiboa baita.

Besteak beste, Robert Samuelson Virgin Mobile Canada, Virgin Mobile France eta Virgin Mobile South Africa konpainietako administrazio-kontseiluetako kidea da. Gaur egun, Virgin taldeko Estrategia Batzordean parte hartzen du. Organo hori arduratzen da inbertsio-aukera berriak edo sozietate- edo korporazio-eragiketak proposatzeaz.

- **Jon James** (1969, Edinburgo-Eskozia) Ekonomia eta Historian lizentziatua da Cambridgeko Unibertsitatean.

Teknologiaren, multimediaren eta telekomunikazioen arloan egin zituen lehen urratsak Jon James-ek lan-munduan. Erresuma Batuko arlo horietako zenbait konpainiatan exekutibo-postuak izan zituen. 2007. urtean, Virgin Media-n hasi zen lanean; han, estrategia-zuzendaria eta telebistako zuzendaria izan zen.

Virgin Media-n 7 urte eman ondoren, 2014an Com Hem enpresan, Suediako kable-operadore nagusian, hasi zen lanean. Eragiketa-zuzendaria izan zen, eta etxeko negozioaz arduratu zen. Negozioaren eragiketa- eta finantza-jarduna azkar eraldatu zuen, bezero-esperientzian, markan eta produktu-marketinean hobekuntza nabarmenak eginez.

2017ko martxoaz geroztik, James jauna Tele2 Netherland-eko kontseilari delegatua da.

Erantzukizun soziala eta gobernu korporatibo egokia

Erantzukizun sozialaren eta gobernu korporatibo egokiaren atalak bete du Taldeko lehendakariaren mintzaldiaren parte handi bat. Akziodunean aurrean izan duen parte-hartzean, Alberto García Erauzkinek aipatu du zer jarduera eta konpromiso hartu dituen Taldeak erantzukizun sozialaren ikuspegitik; haiei esker, euskal eta galiziar gizartearekin lotzea lortu da, lankidetzaren bitartez, babesletzen bitartez, laguntza bitartez..., eta kolektibo guztiekin (elkartek, GKEak, erakundeak eta administrazio publikoak, etab.) kezka partekatuz.

Enpresaren erantzukizun sozialak konpainia-ereduarekin zerikusia duela erakusten du 2016ko maiatzeko Taldearen (Euskaltel eta R) Erantzukizun Sozialeko Politika onetsi izanak, *“helburutzat harturik bere interes-taldeei balioa sortzea, aldi berean bere xedeari eta ikuspegiari eutsiz eta aintzat hartuz tokikoarekiko konpromiso irmoa, gardentasuna, kudeaketaren bikaintasuna, gobernu korporatibo egokia, giza eskubideak, genero- eta aukera-berdintasuna, hornitzaileen erantzukizun sozial korporatiboarekiko atxikimendua eta zerga-politika arduratsua”*.

Horrez gain, 2016an, 2016-2018ko Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Gida Plana onartu zen, zeinaren helburua baita interes-talde guztientzako balioa sortzea, askotariko lan-lerroen bidez, eta konpainiaren gardentasuna areagotzea. Plan horrek, halaber, Nazio Batuen Erakundearen Mundu Itunarekin ditugun konpromisoak ere erantzuten die, hari atxikita baitago Taldea. Horrenbestez, hitzarmen horretan ezarritako printzipioak jarraitu behar diegu, eta Garapen Jasangarriko Helburuei (JSH) babesa eman, gure EES Planaren ildoak bidez.

Euskaltelek 2016an sortutako balio soziala 318 milioi euro izan da

Erantzukizun sozialaren arlo horretan, lehendakariak nabarmendu Euskaltelek, UPV-EHUrekin eta Deustuko Unibertsitatearekin batera, GEAccounting ereduan oinarritutako lehen azterketa egin duela, jakitearren zer balio sortzen duen bere jarduerak lurraldean, ekonomia eta finantzaketako emaitzez haraindi.

Azterketa horren arabera, Euskaltelek 318,1 milioi euroko balio soziala sortu du 2016an. Hori da erakundeak gizarte osoarentzat sortu duen balioa; hor sartzen da erakundeak bere merkatu-jardueraren bidez sortutako balioa eta merkatutik kanpo banatzen den balioa.

Azterketak, bestalde, konpainiaren balio emozionala monetizatu du: 25,7 milioi euro. Balio emozional horrek adierazten du zer sentimendu duten bezeroek eta euskal gizarteak Euskaltel markarekiko.

Gainera, 2016ko ekitaldian, Euskaltelek 100 milioi euro inguru ordaindu die zergatan euskal administrazio publikoak. Alberto García Erauzkinek adierazi du Euskaltelen asmoa dela R-ren eta Telecableren jardueren balioa ere kalkulatzeko, Taldearen urteko balioa lortzeko.

Jardunean hasi zirenetik, Euskaltelek eta R-k 3.000 milioi euro baino gehiagoren erosketak egin dizkiete tokiko hornitzaileei, eta 1.300 milioi euro baino gehiagoren ekarpena egin dute zergatan. Zerga horiek onura zuzena dakarkiotte Galiziako eta Euskadiko gizarteak, gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, osasungintzaren eta azpiegituren bidez, edo kirol- eta kultura-jardueren bidez.

Gainera, azken hamarkadan, 140 milioi euro baino gehiago bideratu ditu Taldeak I+G+Bra. Euskaltel Taldeak 542 laguneko giza taldea du, 44 urte ingurukoa batez beste, eta 3.500 zeharkako lanpostu baino gehiago sortu ditu Euskadin eta Galizian.

Ingurumen-konpromisoa. “Erronka Garbia”

Euskaltel Taldeko Akziodunen Batzar Orokorra, lehenbiziko aldiz, Ihobe Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-kudeaketako sozietate publikoak emandako “Erronka Garbia” ziurtagiriarekin egin da.

Horrek esan nahi du ingurumen-jasangarritasuna aintzat hartuta antolatu dela batzar orokorra, ingurumenaren gaineko inpaktu kaltegarriak minimizatzen.

Euskaltel Taldea, aurreko hilabeteotan, bertako hornitzaileak bilatzen eta haiek ingurumen-gaietan inplikatzeko aritu da; eraginkortasun energetikoaren aldeko neurriak hartu ditu; garraio jasangarria sustatu du batzarrerako; eta material birziklagarri eta berrerabilgarriak erabili dira.

Erronka Garbia ziurtagiriak hau bermatzen du: ingurumenari ahalik eta kalte gutxien egiteko, ingurumen-alderdiak txertatu direla ekitaldien diseinuan eta garapenean. Eragin positiboa dakar, izan ere, ekitaldi baten antolakuntzan jasagarritasuna txertatzeak, murriztu egiten duelako haren ingurumen-inpaktua, eta hobetu haren eragin sozial eta ekonomikoa.

Euskaltel Taldeak bere ingurunearekin eta ingurumenaren babesarekin duen konpromisoaren ondorioa da ziurtagiri hori lortu izana. Horren erakusgarria da Taldearen Kudeaketa Integraleko Sistemaren Politika; haren bidez, konpainiak konpromisoa hartzen du ingurumena babesteko eta kutsadurari aurre hartzeko, bai eta konpainiaren jardueretan ingurumen-inpaktua gutxitzeko eta ingurumen-jardunbide egokiak sustatzeko ere. Horretaz gainera, ingurumena da Taldearen 2016-2018rako Erantzukizun Sozialeko Planaren puntu nagusietako bat.

Euskaltel – Komunikazioa

94-4011229

komunikazioa@euskaltel.com

